

“ARGENTINAN EUSKARAZ” 20 urtez Diaspora euskalduntzen

Verónica Domingo

Hitzaurrea

Orain hilabete pare batzu ETB SATen Estatu Batuetako euskaldunei buruzko programa bat ikusteko aukera izan nuen, Julian Iantzik aurkeztutakoa, programa horretan aurkezlaria Amerikeetako lautadak zeharkatzen dituzten errepideetan dagoen gasolindegiren batean sartzen da, eta eserita “kaña” hartzen ari diren “cow-boy” batzu hasten da elkarrizketatzen euskaraz. Ipar Amerikara joandako euskal etorkinak ziren, urte mordoia zeramatzen han, eta berezia izan zen bizkaitarrarekin izandako elkarrizketa, zeren eta “napartarrez” egiten baitzuen, izan ere, hainbeste urte “napartarrez” ingurutaturik “kutsatu” egin ziotela aitortu zion barrez Julian Iantziri.

Behin, Mar del Platako Euskal etxearen liburutegian dagoen liburu batean¹ irakurri nuen, XX.mende hasieran Cañuelasen² zeuden euskaldun batzuen testigantza arabera, euskara batua sortu omen zela. Zirudienez, hainbeste denbora elkarrekin hizketan pasatzen ziren bizkaitarrak, nafartarrak, gipuzkoarrak eta iparraldekoak, euskalki berri bat sortu omen zutela, “euskara batua” agian.

Aipatutakoaren arabera, ikus dezakegu, aspalditik datorrela euskarak Diasporarekin izandako harremana, betidanik izan liteke; eta zer esanik ez, kontuan hartzen badugu Pedro Mari Otañoren eredu, orain 100 urte Buenos Airesen irakasle moduan ibili zena. Dena den, oraindik, euskal herritar gehienei arrotza egiten zaie, esate baterako, argentinarrak euskaldun bat, edota euskaldun uruguaitar bat euskaraz entzutea.

Euskal herritarrei ez zaie batere arraroa iruditzen, adibidez, senegaldarrak, txinatarrak, marokoarrak edo hegoamerikako haurrak ikastoletan euskaraz mintzatzea, zeren eta Euskal Herrira etorri baitira etorkin gisa, eta euskal gizartean barnera daitezten derrigorrezkoa daukate euskara ikastea. Baina Euskal Herriatik 14.000 kilometroetara euskaraz ikastea, hori bai arraroa!!, bai, bitxia!! bai exotikoa!!.

“Argentinan Euskaraz” programaren bitartez orain 20 urte hasi zen euskalduntzen Euskal Diaspora antolatua; Argentinan hasita hainbat mundu osoko herrialdeetara zabandu zen euskalduntzeko programa hau. 20 urteetan zehar milaka irakasle nahiz ikasle euskaldundu ziren Diasporan. “Argentinan Euskaraz” programan beraien prestakuntza izandako hainbat pertsona³ euskalgintzan daude lanean une honetan Euskal Herrian.

· Abogada por la UNMDP; Magíster en Estudios Internacionales por la UPV/EHU (2007/2008); Becaria en la Dirección de Asuntos Europeos, Secretaría General de Acción Exterior del Gobierno Vasco (2008/2009); profesora de euskera integrante de “Argentinan Euskaraz” (1991/2007). Actualmente residiendo en Vitoria-Gasteiz.

¹ Egia esanda ezin dut liburuaren izenburua gogoratu, baina zin egiten dut han dagoela, Denak Bat Euskal etxearen liburutegian, gure Viviana Rosa Pérez liburuzainak gordeta.

² Buenos Aires eta Santa Fe probintzien artean dagoen herria, oso ezaguna esnearen ekoizpenagatik, eta euskaldun gehienek garai hartan esne-saltzaile, ekoizle edo banatzaile lan egiten zuten, eskualde hartan euskaldun asko kokatu ziren.

³ Honen adibide gisa nik ezaguturiko kasuak aipatuko ditut idazlanean: Juan Abasolo, Marina Paglialonga, Maite Bilbao eta Rozio Lucesena, hain zuzen; baina honek ez du esan nahi pertsona gehiago ez dagoenik, eta aurretik barkamena eskatzen diete ez aipatzeagatik.

Hala eta guztiz ere, ezezaguna da euskal herritarrentzat Euskal Herritik kanpoko euskararen giroa, bai ikasketak, bai ekitaldiak.

Idazlan xume honetatik saiatuko gara birpasatzen Argentinako azken euskarazko 20 urte hauek, pausoz pauso. Era berean, ezin dugu ahaztu Argentinak euskararekiko lotura hasi zuela orain 100 urte baino gehiago, Pedro Mari Otaño bertsolari, olerkari eta euskara irakaslearen eskutik, aurten 100 urte betetzen dira Otañoren heriotzatik, aurten ere “Argentinan Euskaraz” programaren 20. urteurrena ospatzen dugu; Argentinako euskararentzat bi gertaera garrantzitsu hauek biltzen saiatuko gara.

Halaber, ezinbestekoa daukagu, Euskal Herrian euskalgintzaren alde lan egiten ari diren Diasporako kideak aipatzea.

Eta amaitzeko, badirudi ere, kritikak izatea euskal herritarrei Diasporako Euskara ukatzeagatik edo bizkarra emateagatik; ondorio gisa, aipatu nahi izango genituzke hausnarketa egitearren Diasporatik Euskal Herriko euskalgintzarengan daukagun begirada miresgarria ez ezik, Euskal Herritik nola ikusten gaituzten ere, euskaldun exotikoak izan bagina.

Pedro Mari Otañoren itzalean

Iparragirrek zioenez “*Gazte-gaztetandikan herritik kanpora*” eta hala egin zuen Pedro Mari Otañok. Zizurkilera jaioa, oso gazterik 1898an Argentinara joan zen, han hil zen Rosario hirian 50 urterekin 1910ean.

Otaño hiru aldiz joan zen Argentinara, eta hezurak Euskal Herria uzteko nahia adierazi arren han utzi behar izan zituen azkenik. Bizimodua atera beharra eta herrimin sakona elkarrekin lotuta etorri zitzaizkion: Argentinako panpan artzain edo Buenos Airesen euskara-irakasle zegoela ere, tristura horri ezin izaten zion aurre egin. Ezin modu ederragoan adierazita dago oroimen hori "Amerikako panpetan" olerkian, bere lerro hauek hona hemen eskaintzen ditugunak:

*Dena utzi eta etorri nintzan,
lur hau ikusi ni nuan!
Aritz tantayak, pago lerdenak,
nola ez izan goguan!
Orain artzantzan Ameriketan
arrantxo baten onduan,
eguna igaro larrian eta
jiratzen naizen orduan
nere begiyak gozatzen dira
aldemeneko ombu'an*

1904ean Buenos Airesko “Laurak bat” euskal etxean lehenengo euskara eskolak eman zituen Otañok, Argentinako lehenengo euskara irakasle bihurtuz, hain zuzen. Horretaz aparte, bertsolaritzan jarraitu zuen bururaturiko bertso guztiak idazten, zeren han ez zegoen non abesterik.

“Laurak Bat” elkartearen Belgrano kaleko etxe berria inauguratu zenean, urtearen azken aldera, azaroaren 20an, *La Baskoniak* argitaratu zuen Pedro Mariren hitzaldia: *ZUTIK, “Discurso pronunciado por el Sr. Pedro María Otaño, en la fiesta inaugural de la Sociedad Laurak Bat”*. Hitzaldia bi hizkuntzetan egin zuen, gaztelera dotore zeta euskara bikainez amaituz. Mintzaldi abertzalea izen zen, euskara eta Euskal Herriarekiko justizia eskatuz⁴.

⁴ Hernadorena Kultur Taldeak zuzendua (Aranburu, Pello Jose, Arrastoa, Julian, Azkue Joxin eta abar), *Pello Mari Otañoren arnasa (1857-1910), Intxaurrondotik onbura, olerkariaren heriotzaren mendeurrenean 1910-2010*, Zizurkilgo Udala, Lasarte-Oria, 2010, 125. orrialdean

Urte berean “Laurak Bat” elkarteak euskarazko klaseak haur eta helduentzakoak hasi zituen, Pedro Mari Otaño irakasle zelarik. *La Baskoniak* hauxe dio: “*Tan pronto como se inaugure oficialmente el hermoso edificio del Laurak Bat darán comienzo las clases de vascuence, que estarán bajo la acertada dirección del señor Pedro M. Otaño*”. Eskolak azaroaren 21ean hasi ziren, astean hiru egunetan, goizez haurrentzat eta gauzez helduentzat. Hurrengo urteetan ere aldizkariak propaganda egiten jarraitu zuen.

Bi urte iraun zuten eskolek, “Laurak Bat” elkarteak irakaslearen lana ordainduta eta ikasle guztiek doan hartuta. Garai hartan ez zegoen euskara irakasteko metodologia ezta ariketa libururik ere. Beraz langintza honen aitzindari baten aurrean gaude⁵. Berak asmatu eta erabilitako metodologiari buruz gehiago ez dakigu, bakarrik *La Baskoniak* argitaratukoa, metodo funtzionala, praktikoa eta modernoa zela, eta gainera Larramendiren eta Arturo Kanpionen gramatikak erabili zituela. Orobat, aldizkariak 1905eko apirila eta maiatzeko aleetan argitaratu zituen Otañoren ikasteko apunteak.

Gaur Carlos Pellegrini deitzen zaion Buenos Aireseko Unibertsitateko Merkataritza Eskola Nazionalaren egoitzan egin zituen 1906an azken azterketak. Ikasleen zabarkeriak jasan ezinik, Otañok berak proposatu zion 1905eko azaroaren 27an Laurak Bat euskal etxearen presidenteari euskarazko klaseak bertan behera uztea. Proposamena onartua izan zen eta bertsolariaren ametsek porrot egin zuten⁶; dagoeneko 30 urte inguru itxaron behar izan zuten Laurak Baten, berriro euskara eskolak izateko.

Oro har, Pello Mariren bertsoek euskararen egoera eta atzerriko euskaldunen bizitzari buruz kontatzen zuten, euskararen egoeraz oso kezkatuta baitzegoen.

Baina politika ere agertzen da tarteka Pello Mariren bertsoetan, aipatzekoa da Pello Marik idatzitako Kubaren independentziari buruzko bertsoa, eta zer esanik ez Argentinari buruz, 1910ean –Pello Mari hil zen urte eta hilabete berean- Argentinak ospatzen zuen bere independentziaren mendeurrena, eta Pello Marik honako bertso hau eskaini zien argentinarrei:

*“¿Zer gertatzen da Buenos Airesen,
zer Arjertinan guztiyan?
zeri zor zaio alaitasun au.
gure bigarren erriyan
ta gure seme euskal kumeak
jaio ziraden tokiyan
¡A nola denok ez pozkidatu
gaur ospatzen dan eunkiyan!*

Aurten 200 urte betetzen dira Argentina Espainaren menpetik askatu zenean, orain 100 urte Pello Marik idatzi zituen bertso hauek, eta handik gurtxira hil zen. Horregatik, aurten ere Pello Mariren heriotzaren mendeurrena gogoratzen dugu –Argentinaren independentziarekin batera-. Euskal Herrian nahiz Argentinan hainbat ekitaldi antolatuko zituzten Otañoren ondorengoak parte harturik.

Bertsoen bitartez Euskara eta askatasuna zabaldu ez ezik aldarrikatu ere egin zuen Pello Marik, eta Pello Mariren legatua bizirik dago, honen proba da “Argentinan Euskaraz” programaren 20. urtemuga ospatzen ari ginena, 100 urte pasa eta gero, oraindik euskaltzaleak daudela Argentinan.

Otañoren garaitik “Argentinan Euskaraz” azaldu arte

Gonzalo Auzaren arabera⁷, 1904. urtea har liteke Argentinan euskara irakaskuntza sistematikoki hasi zen momentua; bi arrazoi garrantzitsuengatik: lehenengoa, hori izan

⁵ Ibidem, 126. orrialdean.

⁶ Ibidem

⁷ <http://www.euskonews.com/0195zkb/kosmo19501es.html>

zena Laurak Baten Otañok klaseak ematen hasi zen urtea, eta bigarrena, 1904ean Euskal Echea Ikastetxea sortu zen Lavallolen, eta euskara-eskolak bertan 1932. urtera eman zituzten apaiz eta moja euskaldunek.

Baina Euskarak Argentinan izan zuen bultzada handienetarikoa, 1944ean gertatu zen, Euskaltzaleak⁸ fundatu zutenean, handik hainbat euskal iheslari eta errefuxiatu aritu ziren irakasle, beraien artean: Isaac López Mendizabal, Pablo Artxanko, Bixente Biteri, Antonio Arza, Benito Montoya, Antonio Nazabal, Migel Zarate, Bixente Agirre, Pedro Maria Aranoa eta Kepa Erkiaga, besteak beste.

Datorren urteetan, hainbat Argentinako euskal etxeetan, batez ere 60. eta 70. hamarkadetan, euskara-eskola gehiago sortuko ziren, denak etorkin euskaldun eta euskaltzaleen eskutik, esate baterako, Iñaki Anduaga eta Karlota Aguirre euskara irakasleak ziren Rosarioko Zazpiak Bat euskal etxean; Mar del Platako “Denak Bat”en: Juan Ignacio Landeta; Bahia Blancako “Union Vasca”n: Lore Markiegi; Necocheako “Euzko Etxea”n, Hipólito Zubillaga, Marta Etchepare eta Iñaki Anduaga –azken hau 80. hamarkadan, Rosariotik Necocheara bizitzera joan zenean-; La Platako euskal etxean hasiera batean Jose Antonio Luzarraga Legarreta⁹ aritu zen euskara-eskoletan, eta honen ostean, Maria Teresa Otaño Alberdi –Pedro Mari Otañoaren alaba; izan ere, gaztetan Buenos Airesko Laurek Baten López Mendizabal irakaslearekin euskara ikasi zuen-.

Guztiak Euskal Herria utzi zuten arrazoi politiko edo ekonomikoengatik, Argentinara joan ziren aukera berrien bila, bertan euskal etxeetako giroan sartu ziren, eta hurrengo euskal argentinarrak belaunaldiek euskara ez galtzeko uste sendoaren eraginez hasi ziren euskara eskolak ematen. Ez zeukaten ez prestakuntzarik ez ikas-materialik, gehienek beraien liburu eta hiztegiak erabiltzen zituzten klaseak emateko, EKIN argitaraturiko Lopez de Mendizabalen *Xabiartxo* ikasliburua, esaterako, edo *Xabier Peñaren* euskal gramatika; bakoitzak bere euskalkiaz irakasten zuen, gipuzkoarrek gipuzkeraz eta bizkaitarrek bizkaieraz. Baina ziur gaude, beraien egindako lanik gabe, zailago izan zitekeela “Argentinan Euskaraz” martxan jartzea. Bai “Argentinan Euskaraz” bai “Euskara Munduan” programek, zor handia dute antzinako irakasle eta euskaltzale sutsu hauekin, apaitutakoekin ez ezik zerrendan agertzen ez direnekin ere.

Barnetegi ibiltariak, Hezinet, Boga eta Diaspora Plataformak

“Argentinan Euskaraz” programaren hastapena 1988an koka daiteke, Jose Antonio Ardanza Lehendakariak Argentinarako egindako bidaiari, FEVAK laguntza eskaria egin zion Lehendakariari euskal etxeetan euskara irakasteko¹⁰.

Eskari honen ondoren, 1989an, Jularitzako Josu Legarreta eta Juan José González de Txabbarri Argentinan zehar bidaiatu ziren hangoen iritzi, kezka eta beharrak biltzeko helburuaarekin. Bestaldetik, honako egoera aztertu zuten: a) Euskal etxeetan euskara zenbateraino irakasten; garai hartako irakasleen prestakuntza zein zen; euskal etxeetan ez zenbat euskaldunzahar zeude; eta euskal etxeetatik aparte, Argentinako Unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko zer-nolako jokabideak izan behar zituzten¹¹. Hartutako datuen arabera konturatu ziren Argentinako euskararen egoera

⁸ <http://www.euskaltzaleak.org.ar>

⁹ Jose Antonio Luzarraga Legarreta bemeotarrak Buenos Airesko Laurak Baten ere eman zituen euskara-klaseak.

¹⁰ 2010ko ekainaren leian, e-mailen bitartez, Josu Legarretari egindako elkarrizketa.

¹¹ *Ibidem*.

larriz eta indar eskasez; orduan, berehala jarri ziren lanean FEVAko jendearekin batera euskara Argentinan nola bultzatzeko neurriak hartzen eta plangintza antolatzen.

Hasieratik ideia nagusia hango jende gaztea euskalduntzea izan zen, gero beraiek euskara zabaltzeko euskal etxeetan euskara-eskolen bitartez. Bisitatuko euskal etxe guztien artean Macachingoa iruditu zitzaien egokiena barnetegialdi bat antolatzeko, bertako azpiegitura eta baliabideak ezinhobeak baitziren. Izan ere, euskal etxe berak jatetxea nahiz hotela zituen; hauetaz aparte, kirola egiteko aukera ematen zuten han izandako tenis eta futbol-zelaiek, pilota-leku eta igerilekuek, besteak beste. Gainera, abantaila handia iruditu zitzaien Macachin herri txikia ez ezik, hiriburuetatik urrun izatea ere, zeren eta horrela ikasleek distraitzeko aukera gutxi izango baitzuten, buru-belarri ikas zezaten. Eta jara joan ziren 1990ean hainbat euskal etxeko 12 gazteak uda pasatzera.

Macachingo eskarmentua primerakoa izan arren, hurrengo urterako, 1991erako hain zuzen ere, Tandil herriko euskal etxea aukeratu zuten, zeren komunikazio eta garraioen aldetik, hobeto kokatua omen baitzegoen Tandil, Macachin baino. Eta handik aurrera udako nahiz neguko barnetegialdiak Argentinako leku ezberdinetan antolatu zituzten; horrela, barnetegi ibiltari bihurtu zirela esan dezakegu, herri batetik bestera ibili baitziren; esaterako, Macachin eta Tandiletik, ez ezik, Mar del Plata, Arrecifes, San Nicolas, La Plata, Parana eta Cordobatik ere, ibili ziren, besteak beste, euskara irakasle-ikasle argentinarrak. Azken denboraldian Argentinatik kanpo mugitu ziren, Uruguaiako Montevideora eta Txileko Santiagora ere joan ziren euskarazko pedagogia formakuntza egitera.

“Argentinan Euskaraz” programak izandako arrakasta ikusita, 2000. urtean “Euskara Munduan” bihurtu zen; Argentinako ikas-prozesu eredu munduko hainbat lekuetara bidaliz, adibidez, Estatu Batuetara hasiera batean, eta beste herrialdeetara geroztik.

2001ean IKT-ak heldu ziren euskal etxeetara Jaularitzaren eskutik, eta hauekin batera: HEZINET, bakarka, urrutiko moduan eta ordenagailuz euskara ikasteko metodo modernoren bat. Metodo berri honek ez zituen klase presentzialak kendu, baizik eta, laguntza gisa erabiltzen zuten Euskal Diasporako irakasleek; horrela, irakasle batzuk HEZINETeko tutore moduan ere aritu ziren.

2002an interneteko plataformak sortu zituzten irakasleen formakuntzarako. Hasiera batean, irakasle txiki batekin, proba piloto moduan, geroxeago zabaldu zituzten plataformak, euskal etxeetan ikasle gisa ibiltzen ziren hainbat gazte irakasle bihurtzeko aukera emanez.

2004/2007an hasi zen HABE euskara irakasleak urrutitik trebatzen. Orduan, talde hura, 37 argentinarrak eta 3 urugaitarrak osatzen zuten. Urtean zehar irakaslea Euskal Herrian zutela, on-line ikasten zuten euskara eta urtero bi topaketa, bi barnetegialdi izaten zituzten, bederatzi egunetako bakoitza, bata hego hemisferioko neguan eta bestea udan. Talde horren ikasprozesua 2008ko udaberrian amaitu zen Euskal Herrian – Lazkaoko Maizpide barnetegian- burutu zuten egonaldiarekin.

Gaurko "Euskara Munduan" programak hiru lerro nagusi dituela, esan dezakegu. Lehenengoa, irakasleak trebatzea da. Lehenbizi, euskaldundu egiten dira. Horien kasuan, urtean zehar, "Irakaslearen Gunea" plataforma birtuala erabiltzen du HABEk.

Irakaslegaiak Argentinan zehar barreiatuak daude eta Maizpide barnetegitik kudeatzen dira, eta urrutitik landu ezin dituzten trebetasunak lantzeko bi barne-ikastaro antolatzen dira urtero Argentinan: bata neguko oporretan eta udakoetan, bestea. Euskara maila egokia lortzen dutenean, euskaran sakontzeari utzi gabe, oinarritzko trebakuntza pedagogikoa eskaintzen zaie.

Bigarren lerroa, Euskal Etxeak gutxieneko ikas/irakas-materialez hornitzea da. Horretarako, irakasleek behar dituzten kontsulta materialak eta klaseetan erabiltzekoak helarazten zaizkie. 2003tik hona asko aurreratu da, izan ere, BOGA, euskara internet bidez ikasteko programa informatikoa, eskura jarri zaie. BOGA dagoeneko erabilgarri dute 40 Euskal Etxe baino gehiagotan.

Eta, hirugarren lerroa diru laguntzena da. Urtero argitaratzen diren deialdiaren bidez, euskara ikastaro horiek antolatzeko laguntza ematen du HABEK. Dirulaguntzarik gabe Diasporako irakasleentzat oso zaila izango litzateke lortutako euskara maila eta helburuak mantentzea, zeren hizkuntza bat bere jatorrizko lekutik kanpo zabaltzeari buruz hitz egiten ari gara, eta gai honetan euskal erakundeak konprometitzen ez badira, atzerrikoek ez dute ezer egingo.

“Argentinan Euskaraz” zenbakietan.¹²

Kalitatea kantitatea baino hobea omen dela esaten badute ere, “Argentinan Euskaraz” programaren kasuan, zenbakiak derrigorrezkoak ditugu programaren hazkundera eta garrantzia jakinarazteko.

Honako hiru tauletan programaren arlo ezberdinak sailkatzen ditugu, arlo bakoitzean: urteak urte izandako kopurua. Lehenengo taulan irakasleen trebakuntza, taldeetan banatua. Bigarren taulan 1990tik 2000era izandako garapena, eta azkenengoan, 2001etik 2009ra artekoa¹³.

IRAKASLEEN TREBAKUNTZA	
A TALDEA	12
B TALDEA	13
C TALDEA	9
D TALDEA	14
DIASPORA 1	23
DIASPORA 2	9
NAZIOARTEKO TALDEA	14
	94

A TALDEA deitzen zaio hasierako irakasle-taldeari, 1990ean Macachinen sortu zenari, hain zuzen ere; hantxe bertan 12 irakasle aritu ziren. **B TALDEA** 1991ean

¹² Gaby Mendiak –FEVAren Euskara-teknikariak- e-mailen bitartez, 2010ko maiatzaren 26an emandako datuak.

¹³ Aurtengoak, 2010ko datuak faltatzen dira, zeren Gaby Mendiak bidalitako momenturako, oraindik, kudeatzeke baitzeuden. Izan ere, ekainera arte izaten dute denbora euskal etxe eta irakasleek datuak FEVAra bidaltzeko.

Tandilen sortu zen 13 lagunekin. **C TALDEA**, 1993an, Tandilen ere, bildu zen lehenengo aldia 9 lagun parte hartuta. 1997an San Nicolaserara joan ziren 9 irakasle gazteek **D TALDEA** osatu zuten. 2002an **DIASPORA 1** eta **DIASPORA 2** izeneko 2 talde sortu ziren euskal etxeetan zebilen ikasleekin, eta zeukaten euskara-mailaren arabera talde batean edo bestean kokatu zituzten. Hauxe izan zen programari beste buelta bat eman zion aurrerapausua, izan ere, interneten bitartez egin zuten ikas-prosezu gehiena bi talde hauek. 2008ean sortu zen **NAZIOARTEKO TALDEA**, zeren hori izan zen lehenengo aldia barnetegia Argentinatik kanpo antolatu baitzuten, eta bertan Txile, Kolonia nahiz Peruko irakasleek partu hartu zuten. Guztira: 94 ikasle amaitu zuten beraien ikas-prozesua azken 20 urtetan “Argentinan Euskaraz” edota “Euskara Munduan” programaren bitartez.

	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000
EGOITZAK	12	12	20	20	15	17	16	19	19	20	20
IKASTAROAK	17	35	50	52	53	50	41	29	56	42	42
IKASLEGOA-UMEAK	175	53	146	106	186	91	79	312	412	307	307
IKASLEGOA.HELDUAK		175	297	269	305	280	218				
IRAKASLEGOA	17	28	30	30	27	25	24	31	29	32	32

Bigarren taula honetan “Argentinan Euskaraz” programan lehenengo hamarkadetan egindako hazkundera ikus dezakegu; 1990. urtean 12 egoitza edo euskal etxe geneuzkan, euskara-eskolak ematen zituztenetan, kontuan hartu behar dugu, urte horretan Macachingo lehenengo barnetegira 12 ikasle joan zirela, bakoitzak egoitza bat ordezkatzeko baitzuen. 2000. urtean 19 euskal etxe ziren, bitartean 1992, 1993 eta 1999an 20 euskal etxean ematen zituzten euskara-eskolak; 1990etik 2000rako tarte honetan 17/42 ikastaro izan genituen 17/31 irakasle eskuetan, horrek esan nahi du irakasle bat, talde batez baino gehiagoz arduratzen zela, eta gainera euskal etxe batzuetan irakasle bat baino gehiago zegoela. Ikaslegoari dagokien kopuruetan, datuak faltatzen dira, honen motiborekin izan liteke, batzuetan euskal etxeek ez dituztela datu guztiak edo zehatzak bidaltzen FEVAra.

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EGOITZAK	19	29	43	51	54	59	43	25	27
IKASTAROAK	55	44	44	62	93	98	97	59	75
IKASLEGOA-UMEAK	270	566	21	44	92	172	172	142	120
IKASLEGOA.HELDUAK			340	328	732	779	781	513	642
IRAKASLEGOA	29	37					44	46	40
EUSKAL ECHEA - ikaslegoa				336	725	725	900	900	1000
UNIVERSIDAD - ikaslegoa			14	8	6	16	15	10	10

Azkenengo taulan, bigarren hamarkadako datuak ditugu, 2010. urtekoak, izan ezik. Egoitzen kopuruan, 2006a izan zen inportanteena, 59 euskal etxe eta 98 ikastarokin; 2007a izan da ikasle helduen urtea, 781 ikasle aritu baitziren. Ikasle umeak bi taldetan banatu behar ditugu: euskal etxeetan ibilitakoak, eta Euskal Echea ikastetxeetakoak, lehenengo kasuan kopuru handiena 2002an aurkitzen dugu 566 umeekin, Euskal Echean 2004ean hasi ziren 335 umeak, eta 2009an 1000 izatera ailegatu ziren, Argentinako talderik arrakastatsuenak. Bestaldetik, ikus dezakegu, 2007tik 2009ra kopuruak jaitsi direla zutabe guztietan, Euskal Echea ikastetxeetakoak, izan ezik; 2007an irakaslegoa Lazkaon –Euskal Herrian- izan zen Maizpide barnetegia, ezin dugu esan honek

badaukala zer ikusirik edo ez kopuruen jaitsierarekin, 2003tik 2007rako arteko datuak faltatzen zaizkigulako irakasleen kasuan. Amaitzeko Unibertsitateko lektoradoak aipatzeko beharra daukagu, 2003an hasita, ikasle-kopurua, ia mantendu egin da, eta irakaslegoari dagokionez, Argentinako EGAdunak aritzen dira gehienbat, baita Euskaditik beriziki etorritako irakasleak ere.

Argentinatik mundura, mundutik ziber-gunera: “Argentinan Euskaraz” adituen hitzetan

2005 urtean, Euskosarek egindako elkarrizketa batean, Joseba Erkizia HABEren zuzendariak, honela azaltzen zuen zer zen “Argentinan Euskaraz”:

"Orain dela hamasei urte abiatu zen 'Argentinan Euskaraz' programa Argentinako Euskal Etxeetan euskararen presentzia bermatzeko asmoz. 2000. urtetik aurrera "Euskara Munduan" izena hartu zuen programak, eta, 2003an, Gasteizen ospatu zen Munduko Euskal Gizataldeen Biltzarrean behin betiko bultzada eman zitzaion".

Benan Oregi¹⁴, bere ikerketa lanean¹⁵, “Argentinan Euskaraz” programari buruz, honako hau azaltzen du:

"1990 urtean "Argentinan Euskaraz" izenarekin jaio zen programaren bidez, gaur "Munduan Euskaraz" bihurtu dena, 2000 ikasle inguru dira mundu guztiko euskal etxeetan euskara ikasten ari direnak (horietatik 900 inguru Argentinan). Prozesu horren arrakasta informatikak ekarri du alde batetik (HEZINET klase presentzialetatik BOGA sistemaza pasatzean, bakoitzak bere etxean egin ditzake aurrera pausuak, gero tutorearen premia izan arren). Baian baita ere, ezin uka, munduko leku askotan euskara irakasleak prestatzeari ekin zitzaiola lehengotik, eta jarraitzen dira prestatzen. Adibidez, Argentinan bakarrik 1990 urtean 17 irakasle eta 175 ikaslerekin hasi ziren, eta 2005erako 42 irakasleak eta 826 ikasleak"

2006ko Euskadiren Kanpoko Ekintzei buruzko urtekarian, Jose Luis de Castro eta Alex Ugalde irakasleek, honela idazten dut “Euskara Munduan” programaz:

*"(...) Según datos aportados por HABE, actualmente siguen los cursos en las euskal etxeak de América en torno a 1.5000 personas (destacando los 820 estudiantes de Argentina con 42 profesores vasco-argentinos, país pionero con su Programa "Argentinan Euskaraz" iniciado en 1990) y en las de Europa unas 700 personas, a las que hay que sumar el grupo de Australia. Las clases son impartidas en Argentina (20 poblaciones), Uruguay, Chile, México, Venezuela, Brasil (Sao Paulo), Puerto Rico, EEUU (en lugares como Nueva York, Idaho, California, Nevada, Wyoming...), Québec (Montreal), Australia (Sydney), Europa (París, Londres, Roma, Bruselas...) y Estado español (Madrid, Barcelona, Valencia, Valladolid y Murcia)..."*¹⁶

"(...) En 2006 ha proseguido la consolidación del Programa "Euskara Munduan", ampliándose su actividad a un mayor número de centros vascos. Su objetivo es

¹⁴ Lehendakartzaren teknikaria, Euskal Herritar eta Gizataldeekiko Zuzendaritzan lan egiten du, Euskal Diasporan aditua.

¹⁵ “Euskal Kulturaren transmisioa XXI. mende hasieran” izenburuko tesina “Euskal Kultura Transmisio Graduondokoa HUHEZI Mondragon Unibertsitatea 2007-2008”an aurkeztua.

¹⁶ Jose Luis DE CASTRO RUANO y Alexander UGALDE ZUBIRI, Anuario sobre la Acción Exterior de Euskadi. IVAP, Oñati 2007, p. 169.

desarrollar y homologar los cursos de euskera impartidos a adultos. Su gestión es efectuada por el Instituto de Alfabetización y Reesuskaldunización de Adultos / Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) –organismo autónomo adscrito al Departamento de Cultura- en estrecha coordinación con la Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas. Las tareas esenciales han sido: instrucción de profesores para el perfeccionamiento de euskera y la pedagógica básica (para lo cual se cuenta con la plataforma virtual “Habe irakaslearen gunea” y los cursos presenciales formativos específicos); envío a los centros de los materiales necesarios para la enseñanza de los cursos; empleo del método “Boga” de aprendizaje del euskera a través de Internet para las personas interesadas que no puedan acudir presencialmente; puesta en funcionamiento en febrero 2006 del “Portal Ikasbil”, orientado al profesorado y estudiantes de euskera para que dispongan de nuevos recursos y materiales didácticos, archivos sonoros, videos, etc...”¹⁷

2007an, Berria egunkarian, Mikel Carramiñana kazetariak Maizpide barnetegian zegoen irakasle argentinarrei egindako elkarrizketan, honela azaltzen zuen zer zen “Euskara Munduan” programa:

“Euskal Herrian bertan, ez da batere erraza euskal hizkuntza ikasteko gogoz dabilen jendearekin euskaltegiak betetzea. Heldu gehienek, lanerako beharrezkoa ez dutetenean, nekez heltzen diote euskara ikasteko erronkari. Zailtasun horregatik, harrigarria da jakitea itsasoz bestaldeko lur eremuetan, Argentinan, hain zuzen ere, ehunka lagun ari direla euskara ikasten, ia mila, Eusko Jaularitzak berak zabaldutako datuen arabera. Euskal etxeetan eskaintzen dituzte euskara eskolak eta, herrialde hori izanik euskal diasporaren topa-gunerik garrantzitsuena, ez da harriztekoa Buenos Airesen euskal aditza eta gramatikarekin egunero lehiatzen diren ikasleak topatzea, zazpi lurraldeetako herri eta hiri askotan baino gehiago, ziurrenik...”

“(...) Euskal Herrian ikastolak sortzeko gertatu bezala, euskara eskolak emateari ekin zioten lehenengo irakasleek ez zuten horretarako ez laguntzarik ez prestakuntzarik. Urteekin alabaina, HABE eta FEVA (Argentinako Euskal Erakundearen Federazioa) erakundearen arteko elkarlanari esker, barnetegiak antolatzen dituzte irakasleak trebatzeko. Aurten, esate baterako, 38 lagun aritu dira La Platako Euzko Etxean egin zuten topaketan. HABEk aurreikusitakoaren arabera, Argentina osoan 2007an 6.048 euskara eskola ordu hartuko dituzte 900 helduk baino gehiagok, ehun taldetan banatuta. Horrez gain, 300 haur inguruk ere, euskal etxeetan arbasoen hizkuntza ikasito dute...”¹⁸

“Euskal Etxeak” aldizkarian, Andoni Unzaluk –garaiko Zornotzako barnetegiaren arduradunak-, bereziki azpimarratzen zuen euskara irakasle talde argentinarrak egondako egonaldia eta lortutako prestakuntza:

“(...) Por una parte han estado durante aproximadamente dos meses profundizando en el conocimiento del euskera y luen han recibido una formación específica para profesores, para que puedan impartir clases en sus respectivos centros vascos con los mismos métodos que utilizamos aquí...”. “(...) La adaptación de los jóvenes, ha sido muy buena. Este grupo había recibido una formación similar en los internados que se realizaron en el Centro Vasco de Tandil dirigidos por los profesores enviados por el

¹⁷ Ibidem, p.167.

¹⁸ www.berria.info, 2007-07-19

Barnetegi¹⁹, por lo que apenas han notado cambios en los procesos de enseñanza. La única novedad ha sido la relación que han tenido que entablar, siempre en euskara, durante todo el día, con los otros estudiantes del centro, con los profesores y el personal del Barnetegi. Han sido tres meses en los que han tenido que utilizar, casi durante las 24 horas del día, el euskera... ”²⁰

2005ean “Euskosare.org”en argitaraturiko elkarrizketa batean, Jose Frantzisko Zinkunegik –Kinku-, Euskara Mundua programaren zuzendariak, honako hau azaldu zuen:

“El primer programa institucionalizado e impulsado por el Gobierno fue Argentinan Euskaraz. Se puso en marcha en el año 90, respondiendo a la demanda de los centros vascos argentinos realizada en un viaje que hizo el Lehendakari Ardanza. La verdad es que en ese momento se pensaba que era una respuesta puntual, pero el eco fue muy bueno (...). En una primera fase se subcontrató al Euskaltegi de Zornotza; HABE diseñó el programa y el euskaltegi lo gestionó. En 1996, cuando Josune Ariztondo fue Directora General de HABE, decidió que este programa debía volver al Gobierno. Entonces, en el año 96 empezó una segunda etapa de este programa, con el objeto de dotar de los recursos personales necesarios a los centros vascos, en vistas a que fueran autónomos en cuanto a la posibilidad de impartir los cursos; aunque hubiera que financiar, que los recursos humanos estuvieran en la propia Argentina. No quiere decir que mientras funcionaba Argentinan Euskaraz en otros países no se hiciera nada, pero es verdad que el programa más serio y específicamente diseñado respondiendo a las necesidades de un país era ese. Se llamaba Argentinan Euskaraz, pero siempre englobó, al menos desde 1995, también a Uruguay. (...). Desde el año 2000 empezamos un poco a abrirlo a otros países de Sudamérica; pero a partir del 2003 es cuando claramente se puede decir que Argentinan Euskaraz pasó a ser Euskara Munduan: se empezaron a diseñar programas para Estados Unidos, se pusieron curso en México y en San Pablo... poco a poco ha habido una ampliación (...)”

Macachinetik mundura egindako urratsak, protagonisten ahotik

1991ean, HABEren aldizkarian, Argentinako lehen barnetegian ikasle moduan parte hartu zutenen gutun bat argitaratu zuten, honela azaltzen zuten beraien arrazoi eta sentimenduak ikasle-irakasleek:

“Argentinan aspalditik geneukan euskara-ikastaro bat egiteko asmoa. Orain dela bi urte 1990eko urtarrilean FEVAren bidez Argentinako Euskal Etxeetan, Macachinen, hiru hilabetetako ikastaroa egingo zela jakin genuen. Batzuk euskara ikasten ari ginen eta beste batzuek, berria jasota, joatea erabaki genuen. Ikastaro hau gazteentzat prentsatuta zegoelako. Euskal Etxeetako arduradunek guregana jo zuten. Euskaditik irakasle bizkaitar bi, Miren Jo Uriarte eta Gurutze Arrieta, heldu zirenean, Macachinera abiatu ginen. Macachinen, La Pampako herri txiki honetan euskaldunek eragin handia daukate. Herriko enparantzaren aurrean Euskal Etxea dago, eta hara herriko jende guztia joaten da, bertan zenbait aktibitate (kirola, musa,...) egiteko aukera baitaukate. Hantxe bizi izan ginen ikastaroa egin genuen bitartean, Euskal Etxea izateaz gain Hotela ere baita. Hamahiru Euskal Etxetako hogeita lau ikasle ginen eta, elkar ez ezagutu arren, ondo konpondu ginen. Ikastaro honetan, hirugarren urratsa gainditu genuen eta honetaz gain, gero emango genituen klaseak prestatzen lagundu

¹⁹ Zornotzako Barnetegia.

²⁰ “Aprendiendo Euskera en Amorebieta”, Euskal Etxeak aldizkaria, zenb. 26, 1994. Eusko Jaularitzak, p. 29.

ziguten gure irakasleek. Ikastaroa bukatu ondoren, Euskal Etxeetara itzuli ginen irakasle-lanetan hasteko. Hasieran gure esperientzia oso gogorra izan zen. 3. urratsa baino ez geneukan, batetik, eta, bestetik, ez genekien zer zen klase bat ematea. Ikasleen aurrean jartzean zeharo ikaratuta sentitu ginen. Han geunden eta aurrera egin behar. Lehenengo hitza esatean gorri-gorri jarri ginen. Dena dela hau egiteak gure euskara mantentzen lagundu zigun. Zorionez, irakasle zein ikasleengandik laguntza handia jaso genuen. Hurrengo urtean, 1991ko urtarrilean, talde berri bat osatu zen, Macachin taldeko irakasleen ikasleekin. Kurtso hau Tandilen izan zen. Aukeratutako herria oso egokia iruditu zitzaigun, Macachin baino askoz handiagoa delako, paisaia polita duelako eta giro ona daukalako. Egondako hogeita hamaikana artean hiru irakasle (Gernikako bi, Miren Jo Uriarte eta Yolanda Monasterio eta Irungo bat, HABEko teknikaria, Lourdes Elozegi) eta hogeita zortzi ikasle ginen. Bi taldetan banatuta geunden: Macachingoak laugarren urratsetik hasi ziren seigarrenera arte eta berriek lehenengo urratsa berrikusi ondoren, ikasten jarraitu eta hirugarren urratsean bukatu zuten. Lehenengoan ustez, ikasle berri hauen sartzeak giroa hobetu egin zuen oso jende gazte, alai eta prestua da eta. Gazteagoek esaten dutenez, nahiz eta ikastaro hau egitea esperientzia beldurgarria iruditu, animatu ziren, erakargarria baitzen, bai harreman zein euskararengatik. Harremanak aipatu ditugu eta aipatu beharrekoak direla uste dugu. Bai, ikastaro hauetan oso leku garrantzitsua betetzen dute, kontutan hartuz geure ingurutik urrun bi hilabete t'erdi pasatzen dugula. Badakigu Euskadin zuentzat hau ulertzea zaila dela, baina guretzat esperientzia inportantea bezain interesgarria da, euskararen bidez geure sustraiak ezagutu eta beste batzuei zabaltzeko aukera ematen baitigu. Elkar ezagutu eta euskara ikasten aritzen zaretenekin esperientziak trukatzeko izugarri gustatuko litzaiguke. Bukatzeko, hau posible izatea egin duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Izp: Argentinako euskara-ikasleak”

2007an María Elena Etcheverry Lazkaoko Maizpide barnetegian izan zen Diasporako iraskaslegoari zuzendutako ikastaro batean, eta honela azalduo zion BERRIari euskara ikasteko bere zergatiak²¹:

“(…) Nire proiektu guztien aretan, euskara ikasi eta zabaltzea da kuttunena. Ama hizkuntza gaztelera daukat eta frantsesez zein ingelesez ikasi nuen. Euskara baina, ez da hizkuntza soil bat, nire jatorriaren ea nortasunaren hizkuntza baizik. Oso txikia nintzen nire aitonamonak hil zirenean eta sendiak euskal hizkuntza galdu zuen (...) Euskara babestu eta indartzeko, erabiltzeko konpromiso garrantzitsua hartu behar dugu. Horregatik, euskara ikasi, irakatsi eta zabaltzearen alde nago, euskarak mugarik ez duelako. Euskal Herria herri bat da eta euskara bere hizkuntza. Argentina nire aberria, baina Euskal Herria nire jatorrizko herria da. Argentinarra naiz eta euskotarra ere bai, ez da bateraezina (...)”.

Halaber, Priscila Lopez de Vicuña, honako hau azaldu zuen²²:

“(…) Nire aita Deustun (Bilbo) jaio zen eta, euskaraz hitz egiten ez bazuen ere, musika eta janariaren bitartez transmititu zidan Euskal Herria eta euskaltasunarekiko maitasuna. Famili bileretan musika zen nagusi, ondo jan eta edan ondoren kantuan hasten ginen. Gure etxean bazen zerbait gainerakoen etxeetan ez zegoena. Aitaren heriotzaren ondoren, urteak pasa zirela euskal estera hurbildu nintzen, Euskal Kulturaren estera, Buenos Airesen. Geroxeago, Euskaltzaleak eta Euskararen eskola ezagutu nituen eta, pixkanaka, interesa piztu zitzaidan euskaldunen hizkuntzaren inguruan. Duela bost urte

²¹ www.berria.info, 2007-07-19

²² *Ibidem*.

animatu nintzen eta euskara ikasteari gogor ekin nion, euskal kulturaren parte garrantzitsuena zela uste nuelako (...)”.

Bestaldetik, hona hemen, Teresa de Zavaletak –Euskaltzaleak elkartearen lehendakaria- azaldutako bere zergatiak euskarari eusteko²³:

“(...) Prozesu ia osoa Argentinan egin nuen. Hasieren udako oporretan, hiru hilabeteak pasa nituen euskara ikasten, baita negukoetan ere. Orain 15 urte, Lazkaon egon nintzen, hiru hilabetez baina orain dela 3 urte euskra mantentzeko prozesua bukatutzat eman didate, eta aurten Maizpideko barnetegian berriro egon naiz, baina neure Kabul, mantentzea beharrezkoa da, gure artean aukera gutxi baitugu euskaraz bizitzeko. (...) Euskal Herrian hirutan egondakoa naiz eta modu berezian tratatzen naute. Nik uste dut euskaragatik dela. Hango jendea harrিতuta geratzen da Argentinakoak garela, euskara ikasi genuela, eta gainera irakasten dugula jakitean (...)

Gabriel Artzek –buenos airestarrak- 2008an, HABE aldizakariari honako hau esan zion²⁴:

“Duela bost urte hasi nintzen euskara ikasten Buenos Airesen. Banekien euskal sustraiak nituela. Eta hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Egun batean Sociedad Alkoholika taldearen abesti bat entzun nuen. Eta euskara zer zen ikertzen hasi nintzen. Interneten bidez aurkitu nuen Euskaltzaleak erakundea, Buenos Airesen klaseak ematen disuena. Eta hantxe hasi nintzen duela bost urte ikasten. Gero, Eusko Jaularitzak prestatu zuen programa batean “Argentinan Euskaraz” sartu nintzen (...)”

Elkarrizketa berean, Leonat Egiazabali –uruguaitarrari-, bere txanda tokatu zitzaionean, honelaxe azaldu zuen euskararekiko bere harremana:

“Txikitatik izan nuen euskara ikasteko gogo. Etxean istorioak entzuten nituen. Eta aurkitu nuen aukera eta euskara ikasten hasi nintzen (...). Nire amatxi Uruguain sortua izan arren, hizkuntza zerbait mantentzea lortu genuen (...) Ni, etxean “ipurdi-zikina” nintzen. Beraz, hauxe izan zen ikasi nuen lehen hitza. Nire ustez euskara ez da zaila, daila dena da euskara Euskal Herritik kanpo ikastea. Ikas daiteke, hala ere”.

“Irakurle programa” munduko unibertsitateeta - Etxepare Euskal Institutua

“Euskara Mundua” programaz gainera, Kultura Sailak badu beste programa ere euskara eta euskal kultura nazioartean ezagutzera emateko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen programa honen garantizaz jabetzeko, 2007-2008 ikasturtean zehar 12 herrialdeetako 24 unibertsitateetan aritu ziren euskara eta euskal kultura ematen irakasle-irakurleak, denetara 700 ikasle inguru izan zituzten.

Hedatze bidean den Etxepare Euskal Institutuak, HABErekin elkarlanean, garatuko ditu etorkizunean nazioartean euskara irakasteko eskola hauek eta Kultura sailak azken urtetan munduko unibertsitateetan abian jarri zituen euskara eta euskal kulturaren goian aipatutako lektoradoak. Eskola hauek Amerika eta Europako beste hainbat unibertsitateetan Eusko Jaularitzaren Kultura Sailak bultzaturik eskaintzen dira eta Eusko Jaularitzak HABE erakundearen bitartez abian duen Euskal Herritik kanpo helduentzako ematen diren euskara eskolen garapenerako Euskara Munduan egitasmo honekin uztartzen dira, zeinaren baitan Estatuko hainbat hiributan (Madrid, Bartzelona, Valentzia, Valladolid) eta Europako (Paris, Londres, Berlin, Frankfurt, Helsinki,

²³ Ibidem.

²⁴ HABE Aldizkaria, 2008ko otsaila, 387. zenb, 29. orr.

Varsovia, Poznan) eta Ameriketako hiri eta herri desberdinetan (Uruguai, Txile, Mexiko eta ABetako Unibertsitateetan eta Argentina, Uruguai, Txile, Venezuela, Mexiko eta Estatu Batuetako 80 herritan) helduentzako ematen diren euskara eskolak arautu eta garatu dira, horretarako irakasleen trebakuntzari garrantzi berezia eskaini zaio eta eskola horiek materialez hornitu eta autoikaskuntzarako eta urrutiko irakaskuntzarako zein irakasleen trebakuntzarako sistemak ezarri dira.

Argentinako Diasporaren kideak, Euskal Herriko euskalgintzan

Guztiak dira euskaltzale amorratuak, ofizioz eta afizioz, gazteriarengandik daukate euskararekiko harremana, eta txikitatik sentitu zuten euskararekiko zirrara.

Guztiak euskal etxeetako giroan ibilitakoak dira, dantzari edota bazkide moduan, kasu batzuetan jaio ziren egun beretik dira Euskal etxeko bazkide, esate baterako horrela aipatu zuen Maite Bilbaok²⁵.

Diasporakideak dira guztiak, diaspora bertan euskaldundu ziren, Euskal Herrira euskaraz bizitzera etorri ziren, eta gaur bertan euskalgintzaren arlo ezberdinetan lan egiten dute, beti euskararen alde.

Hona hemen dituzue Juan Abasolo, Maite Bilbao, Rozio Lucas eta Marina Paglialungaren testigantzak; batzuekin zuzenean jarri ginen harremanetan beraien iritzia idazlan xume honetan izan dadin, beste batzuen kasuan komunikabideetan zalbaldutako euskararen aldeko beraien lanaren berritik hartu genuen, hala edo nola, emandako laguntzagatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu. Bestaldetik, euskalgintzan lan egiten ari diren beste diasporakidei, hemen aipatzen ez ditugunei, barkamena eskatu nahi diegu, beraien izena ez esatea nahigabeko ahaztea baita, eta guztiei, hemen agertzen direnei, ez ezik, hemen agertzen ez direnei ere, gure mirespena opaldu nahi diegu, euskararen alde egiten ari diren izugarritzako lanagatik

Juan Abasoloren kasuan²⁶, 1989an izan zuen “Argentinan Euskaraz”en berri, izan ere, Buenos Airesko Eusketxearen lehendakariak, Nicomedes Iguainek, hain zuzen ere, eskaini zion Macachinera joatea Eusketxeren ordezkari moduan. Beraz, Juan Abasolok “Argentinan Euskaraz” programaren lehenengo barnetegian parte hartu zuen 1990ean. Handik aurrera, eskaini zioten Argentinan antolaturiko barnetegi guztietara joan zen, Eusketxe bertan euskarazko klaseak ematen aritu zen bitartean. 1992an Lazkaoko barnetegira, Maizpidera, etorri zen “Argentinan Euskaraz” programaren lehen taldearekin batera. Geroxeago, 1994ean, Euskal Herrira euskaraz bizitzera etorri zen; gainera unibertsitateko ikasketak ere euskaraz egin zituen, Magisteritza (musikako espezialitatea) Arangoitiko Irakasle Eskolan (EHUn) ikasi zuen, Antropologian eta Pedagogian (Donostian) ere ibili zen. Pedagogiako ikerkuntza adarra hartu nahi zuen, baina adar horretako ikasgairik ezin egin zitekeen euskaraz (aukera bakarra gaztelaniaz egitea zen). 2005etik hona euskara irakasle dabil, gehienbat Zornotzako Barnetegian eta Gernikako Aita Villasante Udal Euskaltegian, nahiz eta beste batzuetan ere ibili zen.

Euskara irakasle gisa aurkezten du bere burua Juan Abasolok, eta bere hitzen arabera honako honetan datza bere lana:

“Euskara irakaslea naiz, zein mailatako ikaslea eta zein jatorrikoa den sendo aldatzen da lana; esate baterako: Aurten Gernikan eta Zornotzan ditudan ikasleak CI maila egiaztatzen duen agiria ateratzeko dabilta prestatzen.

Gernikako gehienak etxe euskaldunetatik datoz eta D ereduan ikasi zuten, beroriekin gaitasun diskurtsiboan egin behar da lan gehien. Ikasleonek euskara garbitzera jo behar

²⁵ HABE Aldizkaria, 2009ko ekaina, 401. zenb., 6 orr.

²⁶ Juan Abasolok izandako euskara munduarekiko harremana, berak kontatu zigun interneten bitartez egindako elkarrizketa batean.

da, euskaraz pentsatzen badakite ere, askotan ez dakite zer den euskara eta zer erdara pentsamenduaren eta diskurtsoaren eraketan. Zer den garbia eta zer zikina, zer den Gernikako euskara eta zer erdararen eragina.

Zornotzako ikasleak, berriz, gehienak etxe erdaldunetatik datoz eta A ereduan ikasi zuten, beroriekin egin beharreko lana guztiz bestelakoa da: hizkuntza hurreratu behar zaie, gustarazi -ahal den neurrian-, euskaraz pentsatzen erakutsi behar zaie sarri; eta, zelan ez, egin behar duten azterketa hori gainditzeko sekretuak topatzen ere trebatu behar dira, hortxe baitago desiratzen duten”.

Marina Paglialunga²⁷ ere “Argentinan Euskaraz”eko aurreneko taldekoa da, beraz, 1990.urtean sartu zen Macachingo barnetegian. 1992.urtera arte egin zituzten barnetegi guztietan parte hartu zuen, baita euskara-eskokak ematen ere aritu zen Lomas de Zamorako euskal etxean. Bere talde²⁸ osoa Maizpide barnetegira ikastaro trinkoa egitera etorri zenean, Marina Lazkaon gelditu zen, eta harez geroztik Euskal Herrian bizi da (Seguran, Gipuzkoa). EGA titulua 1992. urte berean atera zuen. Unibertsitateko ikasketarik euskaraz egin ez bazuen ere, bere lanerako beharrezkoak zirenak, bai. Euskalgintzan lan egiten du, egia esanda, Euskal Herrian bizi zenetik beti aritu zen euskalgintzari lotutako lanetan. Hasiera batean euskara-eskolak ematen (bai euskaltegian, bai herrian, eskola partikularrak ematen), gero euskarazko materialgintzan ere aritu zen. Gaur Elhuyar Aholkularitzan lan egiten du, Elhuyar Aholkularitzak diseinatu eta kudeatzen dituen enpresentzako euskara-planetan lan egiten du, Bizkaiko enpresa batean, hain zuzen ere, egungo Euskara Teknikaria da Marina Paglialunga.

“Argentinan Euskaraz”en bitartez euskaldundu ziren eta Euskal Herrian euskal-ekintzaileak direnen artean, **Rozió Lucés**²⁹ daukagu uruguaitar bakarra. Montevideon jaio zen, baina txikitatik sentitu zuen euskararen munduarekiko zirrara, amaren familia euskalduna baitzen. Montevideoko Euskal Etxeko dantza taldean ibili ostean – diasporako talde gehienetan egiten denaren antzera-, euskara ikastea erabaki zuen, hamalau urterekin. Geroztik euskara ikasten aritu da gogotsu, eta “Argentinan Euskaraz” programaren eskutik egin zuen bere ikas-prozesu osoa, -aipatzen ari garen pertsona guztiak bezala-. Hasiera batean euskara-eskolak jasotzen zuen Montevideon bertan, gero, Argentinan hainbat barnetegitan parte hartu zuen. 1997an, Argentinako taldearekin³⁰ batera Lazkaoko barnetegira etorri zen ikastaro trinkoa egitera. Euskal Herrian, Lazkaoko barnetegian ikastaro trinko ugari egiteaz gain, Hernaniko Udal euskaltegian egin zituen praktikak euskara-irakasle bihurtzeko bidean. 2002an Euskal Herrira etortzea eta euskaraz bizitzea erabaki zuen. Gaur Getxoko *Egizu* elkartearen egiten du lan euskara sustatzeko proiektuak garatzen, beraien artean “*Berbalagun*”³¹ izenekoa. Bertsolaritzan ere aritzen da Rozió gure urugaitarra, Algortako Bertso Eskolan.

Honako aholkua ematen dio Roziok euskara ikasi nahi duenari:

²⁷ Juan Abasolok egin zuen bezala, Marina Paglialungak ere bere bizipenak kontatu zigun e-mailez bitartez.

²⁸ Hau da A taldea, 1990an Macachinen sortu zena, honexekin hasi zen “Argentinan Euskaraz” programa.

²⁹ Rozió Lucésen kasuan, bere bizipenak hainbat hedabideetan agerturiko testigantzatik hartu genituen, HABE eta Bertsolari Aldizkarietan, besteak beste.

³⁰ Hau da C Taldea, 1993an Tandilen sortu zena. Rozió 1992an Uruguain sortu zen taldetik, Argentinara pasa zen.

³¹ Proiektu hau euskaldun berriak zein zaharrak euskaraz mintzateko elkartzearan datza, horretarako hainbat ekintzak antolatzen dituzte, esate barterako, mendi-irteera, hitzaldiak, liburu aurkezpenak, txangoak, eta abar..., proiektu honetan lan handia eta gogorra egiten du Roziok “Egizu” programan, Getxoko Bizarra Lepoan elkartearen.

“...Esango nioke saia dadila modu trinkoan ikasten eta barnetegiak aprobetxatzen. Izan ere, arinago ikasten da eta jendea beste era batean ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Era berean, esango nioke euskara ikasi ahala jar dezala praktikan...”³²

Lehen aipatu genuen bezala, **Maite Bilbaok**, berak, ez zuen erabaki euskal etxera joatea, bere gurasoek baizik. Bere testigantzaren arabera³³: Maiteren ama Rosarioko euskal etxera joaten zen txikitatik, aita, berriz, Necocheakora, aiton-amonak euskal etxe honetako fundaziokoak ziren, Maite ere oso goiz hasi zen joaten, jaio zenetik euskal etxeko bazkidea da, txikitatik dantzari aritu zen, eta 6 urtekin lehen euskara klaseak hartu zituen bertako batekin, bere kasa euskara ikasi zuen norbaitekin. 12 urte bete zituen serioago hasi zen ikasten Mar del Platatik Necocheara bidaiatzen ziren irakasle biek, -haietariko bat zen artikulua honen egilea, hain zuzen ere-, handik hiru urtera sartu zen “Argentinan Euskaraz” programan³⁴, 15 urterekin euskara irakasle bihurtu zen bere euskal etxean, eta 18 urterekin etorri zen Maizpidera, Lazkaoko barnetegira, bere betiko ametsa betetzen, hori zen: Euskal Herria ezagutzea. Berak zeukan Euskal Herriko irudi folkloriakoa ez aurkitzea beldur bazen ere, heltzean txundituta geratu zen, lantegiak egon bazeuden, baina ondoan baserriak ere bai, eta jendea soroz lanena baserriarrez jantzita; bere logelatik ardiak entzuten zituen, eta Gipuzkoako Goierrin egonda, bizimodua euskaraz egiteko aukera izan zuen; berak amestutakoa baino politagoa zen. 2006an Euskal Herria etorri zen euskaraz bizitzeko esperientzia bizitzera, eta lortu zuen, heldu bezain pronto irakasle gisa eskaini baitzioten lana Hernaniko AEK euskaltegian, eta orain arte arduratzen da atzerritar bi taldez, ikasle etorkinek eredutzat hartzen dute Maite, izan ere, berak ikasi badu, beraiek ere ikasi ahal izango dutela esaten diote.

Amaiera

“Euskara Mundua” egitasmoa aurrera doa abiadura bizian. Aurten 20 urte bete ditu HABEk, Amerika, Europa eta Australiako euskal etxeetan euskararen irakaskuntza bermatzeko abian jarri zuen “Euskara Munduan” programak, “Argentinan Euskaraz” egitasmotik eratorria.

Urte horietan zehar HABEren helburu nagusia euskal etxeak euskararen irakaskuntza autoa izan daitezkeen bertako irakasleak trebatzea izan da, besteak beste. Hori horrela urte horietan 100 euskara irakasle baino gehiago trebatu ditu.

Euskara eskola munduan egitasmoaren baitan bi mila lagunetik gora ari dira euskara ikasten Europa, Amerika eta Australian. Argentinak elkartzeko du ikasle hauen ia erdia. Euskal Herritik kanpo euskara ikasten ari den bi ikasletik bat, argentinarra da.

Baina Argentinako Diasporak ez zuen bere euskararako bidea hasi orain 20 urte, baizik eta orain 100 urte, Pedro Mari Otañok ireki zuen bidea, eta hurrengo hamarkadetan hainbat euskaltzalek jarraitu zuten Otañok hasitako lana, “Argentinan Euskaraz” heldu arte.

100 urte ez dira gutxi, ezta 20 ere, nola liteke orduan, euskal gizarteak edota euskal herritarrek ez ezagutzea errealitate hau, eta arrarotzat hartzea argentinarraren euskaldun bat.

³² HABE Aldizkaria, 2009ko ekaina, 401. zenb., 22 orr

³³ HABE Aldizkaria, 2009ko ekaina, 401. zenb., 6 orr., Maiteren istorioa aldizkari honetan argitaratu zuten, eta bertatik hartu genituen bere hitzak.

³⁴ 1993an, Tandilen parte hartu zuen Maitek lehen aldiz udako barnetegi batean.

Goiko testigantzetan erreparatzen badugu, ikusiko dugu nola elkarriketatuek aipatzen duten jendearen harridura “argentinarren euskara exotiko eta bitxia” entzutean, eta nola kazetariak azpimarratzen dituen aitonomoen ipuinak eta ikasitako lehen euskarazko hitzak; txikikerietan geratzen da kazetariak kasu gehienetan, hala edo nola baztertuz euskaldun peto batzuen aurrean zegoela, Euskal Herrira euskaraz bizitzera bueltatu zirenak.

Nire uste apalean, euskal gizarteak Diaspora ez ezagutzea edo deseuztatzea, bere nortasun propioa ukatzean datza, bere nortasuna etorkin gisa, betidanik euskaldunak etorkinak izan ziren eta joan ziren lekuetara eraman zuten euskara, beraien hizkuntza, eta bueltatzean, nahiz eta belaunaldiak pasatu, euskaraz bizitzera bueltatu ziren.

Kasu honetan, erakundeek gizarteak baino aurrerapausu gehiago egin zituen, Diasporak euskal nortasuna mantentzeko daukan garrantzia ikustean.

Euskal herritarrek, aitzitik, kanpoko euskaldunei eskatzen diete bere nortasuna bereizteko edo sailkatzeko, sorpresaz edo ulertu ezinik jasotzen dute erantzuna: nortasuna izan daitekela bikoitza, eta ez dela bateraezina³⁵. Rozio Lucesek, nongoa den galdetuta, naturaltasunez erantzuten du bi lekutakoa sentitzen dela: hangoa eta hemengoa: “*Hemen nagoenean euskaldunagoa eta han nagoenean uruguitarragoa*”. Beretzat euskara beste mundu baterako leihoa izan dela esanez, euskal herritarrentzat ulertezina dena bertsoz azaltzen du:

Uruguain jaio eta euskara ikasi,
Hori ez zen izan astuna.
Bi herrietan eroso nabil,
Bikoitza dut ondasuna.
Zenbateraino rioplatense,
Zenbatean euskalduna?
Ehunekoetan ez da neurtzen
Norberaren nortasuna³⁶.

Bibliografía

- DE CASTRO RUANO y otro, *Anuario sobre la Acción Exterior de Euskadi*. IVAP, Oñati, 2007.
- HERNADORENA Kultur Taldea (zuzendaria), *Pello Mari Otañoren arnasa 1857-1910. Intxaurrondotik onbura, olekariaren heriotzaren mendeurrenean 1910-2010*. Zirzurkilgo Udala, Lasarte-Oria, 2010.

Artikuluak:

- DOMINGO, María Verónica. *Argentinara joandako bertsolari aparta*. En Atejoka 20. Maiatza 2010. Eusko Ikaskuntzaren buletina.
- ----- . *Pello Mari Otaño, Argentinan Euskaraz, ehun urte baino gehiago*. En “Guregandik” Revista Académica del Centro de Estudios Arturo Campeón. Laprida (Argentina), 2006.

Aldizkariak:

³⁵ Amin Maalouf define un nuevo modelo de identidad, la del emigrante, que simultáneamente puede sentirse libanés y francés, porque la identidad no se compartimenta, ni es divisible en porcentajes.

³⁶ Bertsolari aldizkaria, 2008ko uda, 70. zenb. 109. orr.

- Bertsolari aldizkaria 2008ko uda, 70. zenb.
- Euskal Etxeak aldizkaria, 1994. Eusko Jularitzak, 26. zenb.
- HABE Aldizkaria, 2008ko otsaila, 387. zenb.
- HABE Aldizkaria, 2009ko ekaina, 401. zenb.

Ikerketa-lanak:

- OREGI, Benan. *“Euskal Kulturaren Transmisioa Diasporan XXI. mende hasiera”* izenburuko tesina, Euskal Kulturaren Transmisioa Gradu-ondokoa HUHEZI Mondragon Unibertsitatea 2007-2008an aurkeztua.

Webguneak:

- www.berria.info
- www.euskosare.org
- www.euskaltzaleak.org.ar
- www.euskonews.com

Elkarrizketak:

- Abásolo, Juan.
- Legarreta, Josu.
- Paglialunga, Marina.